



PP Talde Politikoa Grupo Político PP

Ijentea, 1 | Tel. 943481707 | [www.donostia.eus](http://www.donostia.eus)  
20003 Donostia / San Sebastián

## MOZIO ARRUNTA

Talde Popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta MOZIO ARRUNT hau aurkeztu du, Zuatzu industrialdeko langileek dituzten mugikortasun beharrak direla-eta.

## JUSTIFIKAZIOA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak iragarri zuen azterlan bat egiteko asmoa zuela Eskuzaitzeta industrialdeko enpresetan aritzen diren langileen mugikortasun-ohiturak jakiteko.

Azterlan horren helburua industrialde horren egungo egoera, han diren enpresak eta enpresek beren mugikortasun-planik duten ala ez zehatz-mehatz jakitea da, eta baita Gipuzkoako udalerririk handientsuenetako batzuetatik zenbat langile joaten den hara eta nola joateko ohitura duten ere. Era berean, zer neurri aplikatu eta neurri horiek gizarte eta ekonomia aldetik zer ondorio ekar dezaketen aztertzea ere bada lan horren xedea, betiere gero eta langile gehiagok erabil dezan garraio publikoa lanera joateko.

Hala, galdetegi bat bidali zion Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak industrialdean diren hamar-bat konpainiari, haietan aritzen diren langileen mugikortasun egoera jakiteko.

Abenduko ohiko osoko bilkuran kontrol mozioa aurkeztu zuen gure taldeak, Talde Popularrak, Zuatzu industrialdean aparkaleku gehiago izateko proposamena azter zedin eskatzeko. Gainerako talde politikoek atzera bota zuten mozioa, eta defendatu zuten garraio publikoa izan behar dela Zuatzu industrialdeko garraioari buruzko politika publiko oro egituratuko duen ardatza.

Alde horretatik, Talde Popularrak irizten dio Eskuzaitzeta industrialderako egindako azterlanaren antzeko bat eduki behar litzatekeela politika publiko horiek orientatzeko, hala jakingo litzatekeelako zehatz-mehatz Zuatzu industrialdeko enpresetan aritzen diren Gipuzkoako langileen mugikortasun ohiturak eta beharrak.

Horiek horrela direla, hauxe da gure

### MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako Departamentuari eskatzen dio azterlan bat egiteko Donostiako Zuatzu industrialdeko enpresetako langileen mugikortasun-ohiturez.

Donostia, 2026ko otsailaren 6a

Borja Corominas Fisas

Udaleko Talde Popularraren bozeramailea